

• Ziurtagiri elektronikoa onartua: Sinadura elektronikoa buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen 11. artikulua araber, "sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortuak eskatzaileen nortasuna eta gainerako inguruabarrak egiaztatzeari eta egiaztatze-zerbitzuen fidagarritasunari eta bermeei dagokionez, Legean ezarritako baldintzak betetzen dituen egiaztatze-zerbitzuen emaile batek emandako ziurtagiriak dira".

• Herritarra: pertsona fisiko nahiz juridiko oro eta pertsonalitaterik gabeko erakundeak, administrazio publikoekin harremanak dituztenak edo izan ditzaketenak.

• Estandar irekia: Honako baldintza hauek biltzen dituen da:

— Publikoa izatea, eta erabilera doakoa edo sartzeko zailtasunik eragingo ez duen kostuan izatea,

— Haren erabilera eta aplikazioa jabetza intelektual edo industrialaren eskubidea ordaintzako baldintzaren pean ez egotea.

• Sinadura elektronikoa: Sinadura elektronikoa buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen 3. artikulua araber, "sinadura digitala datu multzo elektronikoa bat da, beste datu batzuekin batera edo haiei atxikita bidaltzen dena, eta sinatzailea identifikatzeko erabili daitekeena".

• Sinadura elektronikoa aurreratua: Sinadura elektronikoa buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen 2. artikulua araber, "sinatzailea identifikatzea eta sinatutako datuen geroko aldaketak detektatzea ahalbidetzen duen sinadura elektronikoa da. Soilik sinatzaileari eta aipatutako datuei lotuta dago, eta sinatzaileak kontrolpean izan ditzakeen bitartekoen bidez sortzen da".

• Elkarreragingarritasuna: Informazio-sistemek eta, ondorioz, horietan oinarritzen diren prozedurek daukaten gaitasuna datuak partekatzeke eta euren artean informazioa eta ezagutza trukatzeko.

• Baliabide elektronikoa: Dokumentuak, datuak eta informazioak ekoiztu, bildu edo transmititzeko aukera ematen duen mekanismoa, instalazioa, ekipoa edo sistema; Internet, telefonia finko eta eramangarri edo beste bezalako edozein komunikazio sare ireki edo mugatu barne.

• Sinadura elektronikoa sistema: Sinadura elektronikoa sortzeko esku hartzen duten elementuen multzoa. Ziurtagiri elektronikoa oinarrituriko sinadura elektronikoa kasuan, gutxienez honako hauek osatzen dute sistema: Ziurtagiri elektronikoa, euskarriak, irakurgailuak, erabilitako sinadura aplikazioak eta sinaturiko dokumentuaren hartzaileak erabilitako interpretazio eta egiaztatze sistemak.

• Certificado electrónico reconocido: Según el artículo 11 de la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de Firma Electrónica: «Son certificados reconocidos los certificados electrónicos expedidos por un prestador de servicios de certificación que cumpla los requisitos establecidos en esta Ley en cuanto a la comprobación de la identidad y demás circunstancias de los solicitantes y a la fiabilidad y las garantías de los servicios de certificación que presten.

• Ciudadano y ciudadana: Cualesquiera personas físicas, personas jurídicas y entes sin personalidad que se relacionen, o sean susceptibles de relacionarse, con las Administraciones Públicas.

• Estándar abierto: Aquel que reúna las siguientes condiciones:

— Sea público y su utilización sea disponible de manera gratuita o a un coste que no suponga una dificultad de acceso,

— Su uso y aplicación no esté condicionado al pago de un derecho de propiedad intelectual o industrial.

• Firma electrónica: Según el artículo 3 de la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de Firma Electrónica, «conjunto de datos en forma electrónica, consignados junto a otros o asociados con ellos, que pueden ser utilizados como medio de identificación del firmante.

• Firma electrónica avanzada: Según el artículo 3 de la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de Firma Electrónica, «firma electrónica que permite identificar al firmante y detectar cualquier cambio ulterior de los datos firmados, que está vinculada al firmante de manera única y a los datos a que se refiere y que ha sido creada por medios que el firmante puede mantener bajo su exclusivo control.

• Interoperabilidad: Capacidad de los sistemas de información, y por ende de los procedimientos a los que éstos dan soporte, de compartir datos y posibilitar el intercambio de información y conocimiento entre ellos.

• Medio electrónico: Mecanismo, instalación, equipo o sistema que permite producir, almacenar o transmitir documentos, datos e informaciones; incluyendo cualesquiera redes de comunicación abiertas o restringidas como Internet, telefonía fija y móvil u otras.

• Sistema de firma electrónica: Conjunto de elementos intervinientes en la creación de una firma electrónica. En el caso de la firma electrónica basada en certificado electrónico, componen el sistema, al menos, el certificado electrónico, el soporte, el lector, la aplicación de firma utilizada y el sistema de interpretación y verificación utilizado por la persona receptora del documento firmado.

VITORIA-GASTEIZ

HIRIGINTZA ETA PLANGINTZA

Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketa

108

Udalaren eta SPRILUR, S.A. enpresaren arteko hitzarmena sinatzeari onespina ematea, "VIAP" deritzon eremuaren garapen eta kudeaketa urbanistikorako.

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2010eko abenduaren 3an egindako ohiko bilkuran:

Lehen: Gasteizko Udalaren eta SPRILUR, SA baltzuaren arteko hirigintza hitzarmenari hasierako onespina ematea, erabaki proposamen honi erantsi zaion hitzarmenaren agirian jasota dauden xedapenekin bat etorri; "VIAP" deritzon eremuaren garapen eta kudeaketa urbanistikoa ahalbidetuko du, erabakiarekin bat aurkeztutako hitzarmenak jasotzen duen agirian jasotakoaren araber.

Bigarrena: Erabaki hau hogeie egunez jendaurrean jartzea, udaletxeko iragarki-taulan eta ALHAOn osorik argitaratuz, edonork egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

Hirugarrena: Erabakiaren berri ematea hitzarmenean esku hartu duten alderdi guztiei.

VITORIA-GASTEIZ

URBANISMO-PLANIFICACIÓN

Planeamiento y Gestión Urbanística.

108

Aprobación de la suscripción de un Convenio entre el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y SPRILUR, SA, para el desarrollo y gestión urbanística del ámbito denominado "VIAP".

En sesión ordinaria celebrada por la Junta de Gobierno Local el día 3 de diciembre de 2010 se acordó:

Primero: Aprobar inicialmente el Convenio urbanístico entre el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y SPRILUR, SA, cuyo texto se adjunta a la presente propuesta de resolución, que posibilite el desarrollo y la gestión urbanística del ámbito denominado "VIAP", todo ello con arreglo a las estipulaciones que se hacen constar en el documento de Convenio que se adjunta a este Acuerdo.

Segundo: Someter a información pública por el plazo de veinte días, en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en el BOTHA, con la publicación de su contenido íntegro, a fin de que puedan formularse las alegaciones que se estimen convenientes.

Tercero: Notificar individualmente el presente acuerdo a todas las partes intervinientes en el Convenio.

Laugarrena: Denbora-tarte horretan alegaziorik aurkeztuko ez balitz hitzarmena onesteko erabakia behin betikotzat jo dadila erabakitzea.

Bosgarrena: Gasteizko Udaleko alkate lehendakariari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko hartu behar diren erabakiak hartu eta sinatu behar diren dokumentu publiko edo pribatuak sina ditzan, bai eta zuzendu ditzan ere, beharrezkoa bada.

Dosierra Hirigintza Sailaren bulegoetan egongo da ikusgai (San Prudentzio kalea, 30 - 3. solairua, Gasteiz), adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko abenduaren 9an.– Alkate lehendakaria PATXI LAZCOZ BAIGORRI.

HITZARMENAREN TESTUA

Vitoria-Gasteizen,.....

BILDURIK

Alde batetik, P. L. B. jauna, Gasteizko alkate lehendakaria, zeinen datu pertsonalak ez baitira adierazten duen kargua dela eta jarduten baitu.

Eta bestetik,....., adinez nagusia eta hitzarmen honen ondorioetarako honako helbidea duena:

JARDUTEN DUTE

P.L.B. jauna Gasteizko Udalaren izenean eta hura ordeztuz; helbidea: Gasteiz (Araba), Espainia plaza, z. g. (udaletxea); IFZ: P0106800F. Bere karguaren zereginetan dihardu, Gobernu Batzarrari Laguntzeko Organoko Titularren (M. V. I. M. P. anderea) laguntza duela, 2010eko abenduaren 3an ohiko/aparteko bilkuran hartutako erabakiz ekintza honetarako berariazko eskumena eman zaiolarik.

.....jauna, SPRILUR SA baltzua ordeztuz,.....ko elkargoko notario-ahalordearen bidez –eguna:.....; protokolo zenbakia:.....– ekintza honetarako ahaldundua.

Alderdi biek aitortu diote elkarri ordezteko gaitasuna, ez inpugnatzeko konpromisoa hartzen dute eta honakoa

ADIERAZTEN DUTE

Lehena.- SPRILUR, SA baltzua erakunde publikoa da, izaera, sorrera, gobernu organo eta administrazio zein Ogasun Publikoa arautzen duten printzipioen betebeharrari dagokionez, baina era berean, zuzenbide pribatuaren menpe dago, berezko nortasun juridikoa du eta Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailera atxikia dago.

Ekimen publikotik bideratzen diren ekonomia jardueretarako baliatuko diren lurzoruak aurkitu, garatu, sustatu, kudeatu eta urbanizatzea du zeregin, besteak beste.

Bigarrena.- Hirigintza plangintza eta indarrean dagoen sektoreko legeriak ezarri dutenez, Gasteiz barruan, Zaia ibaiaren ezker aldearen eta aireportuko (Foronda) egungo instalazioen artean dauden lurrak ekonomia jardueretarako eremu garrantzitsua garatzeko baliatuko dira.

Horrela sailkatu eta kalifikatu da berariaz indarrean den Gasteizko Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorrean, zeinak bi alde bereizten baititu: bat –3. eranskinean I eta IIa izenez aipatzen dena– aireportuko plan zuzentzailearekin (2001eko uztailaren 17ko Sustapen Ministerioaren Agindua) eta bera garatzen duen plan bereziarekin (2006ko uztailaren 28an behin betiko onetsitakoa, urriaren 25eko ALHAOn –123 zk. agertua–) lotua; eta bestea –3. eranskinean IIb izenez aipatzen dena– aireportuetako atxikipen juridiko horretatik kanpo, baina, funtzioei dagokienez, oso lotua aurretik aipatu aldearekin (sailkapena: ekonomia jardueretarako lurzoru urbanizagarria, sektoretan banatu gabea, “zehaztapenik gabeko lurzoru urbanizagarria, ekonomia jardueretarako lurzoruaren erreserba, lurzoruaren ondare publikoak”).

Gainera, 3. eranskinaren IIb alde horretan, erdialdeko Arabako lurraldeko plan partzialak ekoizpen-logistikako plataformaren kokapena

Cuarto: Acordar que, de no formularse alegación alguna durante este trámite, se considere definitivo el acuerdo de suscripción del convenio.

Quinto: Facultar al Excmo. Sr. Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, para la adopción de cuantas resoluciones y firma de cuantos documentos, públicos y/o privados, requiera la materialización del presente acuerdo, así como, en su caso, su subsanación y/o rectificación.

El expediente estará expuesto al público en el plazo señalado en las dependencias del Departamento de Urbanismo, en C/San Prudencio, 30, 3º planta de Vitoria-Gasteiz.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de diciembre de 2010.– El Alcalde-Presidente. PATXI LAZCOZ BAIGORRI.

TEXTO DEL CONVENIO

En Vitoria-Gasteiz, a ... de ...de

COMPARECEN

De una parte, el Excmo. Sr. D. P. L. B., Alcalde-Presidente del Excmo. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, cuyos datos personales no se reseñan por actuar en virtud del cargo que representa.

De otra, D., mayor de edad, con DNI nº ... y domicilio a efectos del presente convenio en C/..., ...

ACTÚAN

D. P. L. B., en nombre y representación del Excmo. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, con domicilio en Vitoria-Gasteiz (Álava), Plaza de España s/n (Casa Consistorial), y con NIF P0106800F. Actúa en ejercicio de su cargo, asistido por la Titular del Órgano de Apoyo de la Junta de Gobierno Local, Dña. M. V. I. M. P., expresamente facultado para este acto, en virtud de acuerdo adoptado en sesión ordinaria/extraordinaria celebrada por la Junta de Gobierno Local de fecha 3 de diciembre de 2010, ...

El Sr. D., en representación de SPRILUR, SA y facultado para este acto por poder notarial otorgado ante el Notario del Colegio de..., D., en fecha ... de ... de ... y número de protocolo, ...

Ambas partes se reconocen la representación que dicen ostentar, se comprometen a no impugnarla y

MANIFIESTAN

Primero.- Que SPRILUR, SA es un ente instrumental público, en cuanto a su naturaleza, creación, órganos de gobierno y administración y cumplimiento de los principios reguladores de la Hacienda Pública, e igualmente sometido al Derecho privado, con personalidad jurídica propia y adscrito al Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

Entre sus funciones se encuentra la localización, desarrollo, promoción, gestión y urbanización de distintos suelos con el objeto de poder destinarlos a actividades económicas desde la iniciativa pública.

Segundo.- El planeamiento urbanístico y la legislación sectorial vigentes han establecido, dentro del término municipal de Vitoria-Gasteiz, que los terrenos existentes entre la margen izquierda del río Zayas y las actuales instalaciones del aeropuerto de Vitoria (Foronda) sean destinados al desarrollo de un importante ámbito de Actividades Económicas.

Así se encuentra clasificado y calificado expresamente en el vigente Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz que distingue dos zonas: una –la denominada I y IIa del anexo nº 3- vinculada al Plan Director del Aeropuerto (Orden del Ministerio de Fomento de 17 de julio de 2001) y el Plan Especial que lo desarrolla (aprobado definitivamente el 28 de julio de 2006, BOTHA nº 123 de 25 de octubre), y otra –denominada IIb en el anexo nº 3- ajena a tal adscripción jurídica aeroportuaria pero funcionalmente muy relacionada con el área anterior (clasificada como suelo urbanizable no sectorizado de actividades económicas, “suelo urbanizable sin determinaciones, Reserva de Suelo para Actividades Económicas, Patrimonios Públicos del Suelo”).

Además, en dicha zona IIb del anexo nº 3, el Plan Territorial Parcial de Álava Central recoge la ubicación de una Plataforma

jasotzen du, zentro logistikoa bere barruan hartuko duena, bai eta aeronautikarekin lotutako jarduerak garatzeko gunea, biltegiakoa, zama zatikatze gunea zabaltzea, jardueretarako parkea eta zerbitzugunea ere. Bukatzeko, ekonomia jardueretarako eta merkataritza ekipamenduetarako lurzorua sortzeko ekimen publikoaren sektoreko lurralde planak berariazko proposamena egiten du, hain zuen, honakoa sortzeko: "Forondako aireportuaren inguruan enpresei zerbitzua emateko eta jardura berritzaileen parkea".

Hirugarrena.- SPRILUR, SA baltzuak eskumena duten beste administrazio edo erakunde publikoekin sinatu nahi ditu hitzarmenak, enpresa parkea -VIAP izenekoa- sortu ahal izateko, beharrezko bada, egungo aireportuaren eremua berriro definituz, aireportuak garatzen duen jardura sendotzeko, bere espezializazioa -merkantzien zama- aprobetxatuta, aeronautikaren sektorearekin lotutako industria eta logistika jarduerak erakartzeko asmoz.

Ekonomia jardueren eremu horrek -VIAP-, 3. eranskineko IIa eta IIb aldeak hartzen dituenak, gutxi-gorabehera, berrogeita zortzi (48) hektareako azalera gordina izango du.

Laugarrena.- Alderdiek elkarrekin sortu nahi dute enpresa parke hori - VIAP - Forondako aireportuko berrabiadarako ezin garrantzitsuago izan baitaiteke, bai eta udalerrirako, lurralde historikorako zein autonomia erkidegorako balio erantsi altuko enpresa ehuna sortzeko ere.

Indarrean dauden legeak, bereziki hirigintzari buruzkoak aintzat harturik, interesa duten operadoreek haien proiektuak garatu ahal izateko lurzorua azkarrago eta era eraginkorragoan eskura izan ditzaten landu beharrezko prozedurak erabakitzeke ados jarri dira alderdiak, haien proiektuak denbora tarte ahalik eta txikienean gauzatu daitezten.

Bosgarrena.- Proiektuak garatu ahal izateko lurzorua eskatzen duten operadoreei erantzuna emateko orduan berehalakotasun hori ahalbidezko, eta VIAP enpresa parkearen bideragarritasun ekonomikoa zein merkataritzakoa bermatzeko, aireportuko plan zuzentzailearen eta plan bereziaren eremukoak izanik, haren titulartasun pribatukoak diren lurzoruaren garapen zein kudeaketara joateko aukera ere aurreikusitako SPRILUR baltzuak.

Aurretik aipatutakoak kontuan harturik, bildutakoek, zeinek bere ordezkapenaren arabera, hirigintza hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute, ondoren datozen xedapenekin:

HITZARTUTAKOAK

LEHENA.- Eusko Jaurilaritzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian araututako hitzarmen hirigintza iazarako da honakoa.

Aipatu zazpigarren xedapen gehigarri horretan araututako artetik, honakoak hirigintza antolakuntzaz zein gauzatzear jarduten du.

BIGARRENA.- Gasteizko Udalaren eta SPRILUR, SA baltzuaren arteko harremana arautzea du helburu hitzarmenak, "VIAP" izeneko eremua erabat garatu zein haren hirigintza kudeaketarako; lurzoruaren gaineko jardueraren eta kalifikazioaren xede dira sustapen edo interes publikoko ekonomia jarduerak ezartzea, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 16.2 artikulua xedatutakoarekin bat, eta zehatzago izanik, aeronautikaren sektorearekin loturiko industria zein logistika jarduerak.

Hitzarmenak jasotzen dituen aipatu jardueraren datuak, aurreikuspenak eta zehaztapenak jarraibide posibleak baino ez dira, eta aldatu ahal dira hirigintza erabilera edo xede hobeak, edo eragiketaren bideragarritasun ekonomikoak horrela egitea gomendatzen badute.

Bildutakoek nortasun zein izaera eta hitzarmenaren xedea zein eragindako lurzoruarekiko aurreikusitako erabilera aintzat harturik, interpretatzeko zein aplikatzeko ondorioetarako, harekin gauzatu nahi den jardura interes publiko eta orokorrekoa dela aitortzen da.

logístico-productiva que incorporaría un centro logístico, un área de desarrollo de actividades vinculadas a la aeronáutica, una zona de almacenaje, la extensión del área de fraccionamiento de carga, un parque de actividades y un área de servicios. Finalmente, el Plan Territorial Sectorial de creación pública de suelo para actividades económicas y de equipamientos comerciales incluye como propuesta específica un "Parque de servicios a las empresas y actividades innovadoras en torno al aeropuerto de Foronda".

Tercero.- Que SPRILUR, SA pretende suscribir convenios con otras administraciones o entidades públicas competentes de forma que se posibilite, incluso mediante la redefinición del actual ámbito aeroportuario, la creación de un Parque Empresarial —denominado VIAP— para consolidar la actividad que se desarrolla actualmente en el aeropuerto, aprovechando la especialización en carga del mismo para la captación de actividades industriales y logísticas vinculadas al sector aeronáutico.

Dicho ámbito de actividades económicas, el citado VIAP, y que comprende las zonas IIa y IIb del anexo nº 3, contaría con una superficie aproximada de cuarenta y ocho (48) hectáreas de superficie bruta.

Cuarto.- Que es interés de las partes colaborar asimismo en la generación del señalado Parque Empresarial VIAP, de capital importancia por el relanzamiento que puede suponer dicho Parque para el Aeropuerto de Foronda, así como para generar un tejido empresarial de alto valor añadido para el Municipio, el Territorio Histórico y la propia Comunidad Autónoma.

Dentro del respeto a la legalidad vigente y a la urbanística en particular, los comparecientes están de acuerdo en articular los procedimientos que de manera más rápida y efectiva permitan poner a disposición de los operadores interesados, suelos en los que puedan desarrollar sus proyectos con un horizonte temporal lo más inmediato posible.

Quinto.- Con el fin de posibilitar esa inmediatez en la respuesta ante operadores demandantes de suelo en los que poder desarrollar sus proyectos y en garantía también de la viabilidad económica y comercial del Parque Empresarial VIAP, SPRILUR ha previsto incluso la posibilidad de acudir al desarrollo y gestión de suelos que aún incluidos en el ámbito del Plan Director y del Plan Especial aeroportuarios, resulten de su titularidad privada.

En virtud de cuanto antecede, los comparecientes en la representación que ostentan acuerdan celebrar el presente Convenio urbanístico conforme a las siguientes

ESTIPULACIONES

PRIMERA.- El presente convenio tiene naturaleza urbanística de los regulados en la Disposición Adicional Séptima de la Ley del Parlamento Vasco nº 2/2006 de 30 de junio.

De entre los regulados en la meritada Disposición Adicional Séptima, el presente convenio versa tanto sobre ordenación urbanística como sobre ejecución urbanística.

SEGUNDA.- Es objeto del presente Convenio la regulación de la relación entre el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y SPRILUR, SA, para el pleno desarrollo y gestión urbanística del ámbito denominado "VIAP", siendo el destino de la calificación y actuación sobre los terrenos la implantación de actividades económicas de fomento o interés público de conformidad con lo dispuesto en el artículo 16.2 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, y más en concreto, actividades industriales y logísticas vinculadas al sector aeronáutico.

Los datos, previsiones y determinaciones de la citada actuación a que se refiera el presente convenio, operan a nivel indicativo y son susceptibles de modificación si así lo aconsejara el mejor uso o destino urbanístico o la propia viabilidad económica de la operación.

Atendiendo a la identidad y naturaleza de los comparecientes y al propio objeto del convenio y uso previsto para los suelos afectados, a los efectos de su interpretación y aplicación, la actuación que con el mismo se pretende materializar se declara de interés público y general.

HIRUGARRENA.- Antolakuntza eta kudeaketa tresnei dago-kienez, zeinen aldaketa eta/edo izapidetzea eta/edo onespina beharrezko baita aipatu eremuan jarduteko, Gasteizko Udalak, bere eskumenen baitan, honako betebeharrak hartzen ditu bere gain:

a.- 3. eranskineko IIb aldea sektoretan banatzeko plana izapidetu dadin bultzatuko du, Eusko Jaurilaritzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 93. eta 94. artikuluek xedatutakoaren ildotik.

Aipatu sektore berriak 3. eranskinean adierazten diren erabilera zein hirigintza zehaztapenak izango dituen ekonomia jardueren eremua osatuko du. Erabilera zein zehaztapen horiek aldatu ahalko dira, aurretik horretarako arrazoi teknikoak emanik eta sinatzaileen adostasunez, legeek ezarritako izapidetzearekin bat.

Lurzoru horien xedea, indarrean dagoen plangintzarekin bat, aeronautikaren sektorearekin loturiko ekonomia jarduera, industrial eta logistikoa izango da.

Jarduteko sistemari, kudeatzeko modalitateei eta, kasua denean, desjabetzearen onuraduna izendatzeari dagokienez, honako hitzarmenaren bosgarren estipulazioan aurreikusitakoa bete beharko da.

b.- Eskumena edo horretarako ahamena duen administrazio edo erakunde publikoak aireportuko plan zuzentzailearen eta, kasua denean, plan bereziaren muga aldatzeko agiriak aurkeztuko balitu udalaren aurrean, VIAP eremu berriarekin bateratzeko xedez, udalak –dagoionaren arabera– horiek izapidetu edo aldakuntzari atxiki daitezten bultzatuko du.

c.- Sistema orokor biak udal plangintzan sartuko ditu, eskumena duten administrazioek ebazpena eman ondoren: hau da, hidraulikoa Zaia ibaiaren ezker aldean eta bidekoa Gasteiztik Mendozarako errepidean, 3. eranskinean deskribatutakoarekin bat, eta VIAP eremu berrira atxikiko du, bai eta kasu bakoitzean indarrean dagoen aireportuko plan berezira.

d.- Oro har, hitzarmenaren xede diren eremuko lurzorua urbanizatzeko prozesuan sartzeko beharrezko diren hirigintza tresnen behin betiko onespenerako burutu beharreko administrazio izapideak berehala burutuko ditu.

e.- Obrak abiarazteko behar diren garatzeko, kudeatzeko edo urbanizatzeko behar beste plangintza tresna aurkeztuko du, udalak behin betiko onesteko, posible bada teknikoki aurretik doanarekin batera.

Horrela, Udalak eskatzen zaizkion urbanizatzeko proiektu eta azterlan xehean inguruko izapideak bultzatuko ditu, hain zuzen, egun aireportuko plan zuzentzailearen eta/edo plan bereziaren barruan dauden lurzoruei dagokienez (3. eranskinaren I eta IIa aldeak), kontuan hartu gabe titulartasun publiko edo pribatukoak diren.

Hirigintza tresna horiek indarrean dagoen aireportuko plan bereziaren araudiko 2.2.2. eta 2.2.4. ataletan xedatutako eduki eta helburuak izango dituzte.

f.- Kasu bakoitzean antolakuntzako tresnek ezartzen dituzten hitzarmen, lankidetzak edo desjabetzeko dosierak izapidetu daitezten bultzatuko du, era arduratsuz eta ezarritako prozedurarekin bat.

g.- Desjabetzeko sistemara jo behar izanez gero, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 182. artikulua xedatutako salbuespenezko inguruabarrak batera badira horrela aitortuko du, baimena emateko ondorioetarako.

h.- SPRILUR, SA baltzua administrazio publikoaren erakundetzat joko du, Eusko Jaurilaritzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legean zein hura garatu eta osatzen duen araudian xedatutakoaren ondorioetarako.

i.- Aireportuko plan zuzentzailearen eta/edo plan berezian sartzen diren urbanizazio proiektu zein azterlan xehe behin betiko onetsi ondoren, eta SPRILUR baltzuaren ekimenez, plangintza orokorraren aldakuntza izapidetu dadin bultzatuko du; horretarako 3. eranskineko IIa aldearen barruan sailkatutako lurzorua, finkatu gabeko hiri lurtzat joko ditu (hiri lurra eremuko erregimenean, indarrean dagoen HAPOk araudiaren 4.03.03 artikuluko terminologiaren arabera) MOA –Eremuko antolakuntza mantentzea– erregimenearekin, eta desjabetzeko gauzatze

TERCERA.- En relación a los instrumentos de ordenación y de gestión cuya modificación y/o tramitación y/o aprobación resulta precisa para la actuación en el ámbito referido, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en el marco de sus competencias se obliga a:

a.- Impulsar la tramitación del Plan de Sectorización de la zona IIb del anexo nº 3 en los términos previstos en los artículos 93 y 94 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006 de 30 de junio.

Dicho nuevo sector, conformará un ámbito de actividades económicas y con los usos y determinaciones urbanísticas que se señalan en el anexo nº 3. Dichos usos y determinaciones podrán ser modificados, previa justificación técnica y de mutuo acuerdo entre las partes firmantes, siguiendo la tramitación legalmente prevista para ello.

El destino de dichos suelos será, conforme al planeamiento vigente, el de actividades económicas, industriales y logísticas vinculadas al sector aeronáutico.

En cuanto al sistema de actuación, modalidades de gestión y, en su caso, designación de beneficiario de la expropiación, se estará a lo previsto en la estipulación quinta de este convenio.

b.- Si por la administración o ente público competente o facultado para ello, se presentaran ante el Ayuntamiento los documentos de modificación de la delimitación del Plan Director Aeroportuario y, en su caso, del Plan Especial con el fin de compatibilizarlo con el nuevo ámbito VIAP, el Ayuntamiento –según corresponda– impulsará la tramitación o la adhesión a la modificación de los mismos.

c.- Incorporar al planeamiento municipal, previa resolución de las administraciones competentes, sendos sistemas generales: de naturaleza hidráulica en la margen izquierda del río Zayas y viaria en la carretera de Vitoria-Gasteiz a Mendoza, conforme se describe en el anexo nº 3, adscribiendo los mismos al nuevo ámbito VIAP, así como al Plan Especial Aeroportuario vigente en cada caso.

d.- En general, a la inmediata práctica de los trámites administrativos necesarios para la aprobación definitiva de los instrumentos urbanísticos precisos para la incorporación de los terrenos incluidos en los ámbitos objeto del presente convenio, al proceso urbanizador.

e.- La presentación para su aprobación definitiva en sede municipal, de cuantos instrumentos de planeamiento de desarrollo, gestión o urbanizadores sean precisos para el inicio de las obras incluso, cuando ello sea posible, de manera simultánea con el que técnicamente le preceda.

De este modo, el Ayuntamiento procederá a impulsar la tramitación del Proyecto/s de Urbanización y Estudio/s de Detalle que se le soliciten y referidos a los suelos comprendidos en la actualidad en el ámbito del Plan Director y/o Plan Especial aeroportuarios (zonas I y IIa del anexo nº 3) e independientemente de la titularidad pública o privada de los mismos.

Dichos instrumentos urbanísticos tendrán el contenido y finalidad previstas en el apartado 2.2.2 y 2.2.4 de la normativa del Plan Especial Aeroportuario vigente.

f.- A impulsar la tramitación de los expedientes de concertación, cooperación o expropiatorios que los instrumentos de ordenación establezcan en cada caso de modo diligente y conforme al procedimiento establecido.

g.- En el supuesto de actuación por el sistema de expropiación, a declarar concurrentes, en su caso, las circunstancias excepcionales a los efectos de concesión de licencia, previstas en el artículo 182 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

h.- La consideración de SPRILUR, SA como “ente instrumental” de la administración pública a los efectos de lo previsto en el articulado de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006 de 30 de junio y normativa que la desarrolla o complementa.

i.- A, una vez aprobados definitivamente el Proyecto de Urbanización y el Estudio de Detalle de los suelos comprendidos en la actualidad en el Plan Director y/o Plan Especial aeroportuarios, impulsar la tramitación a instancias de SPRILUR de la modificación del planeamiento general, clasificando los suelos comprendidos en la zona IIa del anexo nº 3, como urbanos no consolidados (urbano en régimen de ámbito en la terminología del artículo 4.03.03 de la normativa del vigente PGOU) con el régimen MOA –Mantenimiento

publikoaren sistema baliatuko du kudeatzeko, hitzarmen honen bosgarren estipulazioak xedatutakoarekin bat, bai eta aireportuko eremuaren barruan jarraitu izan balu egokituko litzaizkiokeen hirigintza zehaztapen bereberekin.

Aireportuko plan zuzentzailearen eta/edo plan bereziaren baitako lurzorua urbanizatzeo proiektua eta azterlan xehea behin betiko onetsi ondoren eta aurreko paragrafoan aurreikusitako plangintza orokorraren aldakuntza behin betiko onetsi aurretik, operadore batek SPRILUR baltzuarenak diren eta 3. eranskinetik Ila aldean dauden lurzoruetan jartzeko interesa agertuko balu, dagozkion obra eta/edo jarduera lizentziak izapidetuko ditu Gasteizko Udalak, zeina urbanizazio obrak gauzatzearen eta plan bereziaren araudiko 2.3.3. artikularen 5. atalean –hirugarrenek sustatutako obrak– aurreikusitako baimena lortzearen menpe baino ez baitira izango, edo hura behar ez dela dioen jakinarazpenaren menpe.

j.- Hirigintza prozedura, dossier edo tresnak –egun indarrean daudenak edo etorkizunean proposatuko direnak– lantzeko eta/edo izapidetzeko eta/edo behin betiko onesteko laguntza –betiere aplikatu beharreko legeek diotenarekin bat– emango du, horiek ahalbidetuko badute berehalakotasunaren helburua bete dadin lurzorua operadoreen eskura jartzeari dagokionez, hitzarmen honetako adierazpenetako laugarrenaren bigarren paragrafoan adierazitakoarekin bat.

k.- SPRILUR, SA. baltzuak, honako hitzarmenean jasotakoari jarraiki, bere gain hartzen dituen betekizunak betetzeko, udalaren agiri, txosten eta zerga erregistroak lortu edo horiek ikus ditzan erraztuko du Udalak, betiere, Datu pertsonalei buruzko datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoan xedatutakoarekin bat.

l.- Egun 3. eranskinetik IIb aldearen baitan dauden eta, indarrean dagoen HAPORekin bat, “zehaztapenik gabeko lurzoru urbanizagarriak, ekonomia jardueretarako lurzoruen erreserba, lurzoruen ondare publikoak” sailkapena duten lurzoruei dagokienez, horiek nahitaez lortzeko administrazio dossierari abiaraziko du Udalak, legeak xedatzen duen moduetako edozein baliatua, SPRILUR baltzuaren ondarrera biltzeko, berak eskatua, bera baita izapidetuko den desjabetzearen onuraduna.

Ekintza hori estipulazio honetako “a” atalean xedatzen denarekin batera burutu ahalgo da.

m.- Plangintza orokorraren hurrengo berrikusketan VIAP enpresa parkea aireportuetako sektorearekin lotutako ekonomia jardueraren, industrialaren eta logistikoaren eremu bakar gisa sartzeko izapideak burutzea, hirugarren adierazpenaren xedatutako konfigurazio fisikoan.

Laugarrena.- SPRILUR, SA. baltzuak honako betebeharrak hartzen ditu bere gain lankidetzat hitzarmen honi dagokionez:

a.- 3. eranskinetik IIb aldea sektoretan banatzeko planaren dossierak izapidetzeko beharrezko diren agiriak behar bezala idatzi eta Udalaren aurrean aurkeztuko ditu, bai eta eranskin bereko Ila aldeko udal plangintza orokorraren aldakuntza ere. Era berean, plangintza xeheari, urbanizatzeko jardueraren programari, kudeatzeko eta berdinbanatzeko proiektuei, urbanizatzeko eta desjabetzeko proiektuei dagozkienak.

b.- Udalak eskatzen dizkion izapideak arretaz beteko ditu.

c.- Jardueraren sustatzaile eta, kasua denean, eremuaren baitako lurren jabe den aldetik, indarrean dagoen hirigintza araudia beteko du

d.- Udalaren alde egingo dituen lagapenei eta urbanizatzeko obrak gauzatzeari, bai eta, kasua denean, horien mantentze lanei dagokienez, indarrean dagoen hirigintza araudia beteko du.

e.- Ahalik eta laguntzarik handiena emango dio Gasteizko Udalarari, horretarako komunikazio bide errazak eta honako hitzarmena dela eta sor daitezkeen zalantzak aztertu zein argitzeoak ezarriko ditu; eta jardunean aritutako urteek ematen duten esperientziagatik duen

de la Ordenación de Ámbito- y a gestionar mediante el sistema de actuación en régimen de ejecución pública de expropiación en los términos de la estipulación quinta de este convenio, y con las mismas determinaciones urbanísticas que le corresponderían de haber continuado dentro del ámbito aeroportuario.

Si, una vez aprobados definitivamente el Proyecto de Urbanización y el Estudio de Detalle de los suelos comprendidos en la actualidad en el Plan Director y/o Plan Especial aeroportuarios y antes de aprobarse definitivamente la modificación de planeamiento general prevista en el párrafo anterior, constara el interés de un operador para su implantación en parcelas propiedad de SPRILUR en la zona IIa del anexo nº 3, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz tramitará las preceptivas licencias de obra y/o actividad, condicionado únicamente a la ejecución de las obras de urbanización correspondientes y a la obtención de la autorización prevista en el apartado 5 del artículo 2.3.3 –obras promovidas por terceros– de la normativa del Plan Especial o comunicación de innecesidad de la misma.

j.- A prestar su colaboración en la elaboración y/o tramitación y/o aprobación definitiva –siempre en el marco de la legalidad aplicable– de todos aquellos procedimientos, expedientes o instrumentos urbanísticos, vigentes en la actualidad o propuestos en un futuro, que permitan cumplir con el objetivo de inmediatez en la puesta a disposición de suelos, señalado en el “manifiestan” cuarto, párrafo segundo, de este convenio.

k.- Para el cumplimiento de las obligaciones que en virtud de este convenio SPRILUR, SA asume, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz le facilitará la obtención y acceso a documentación, informes y registros fiscales municipales, previa observancia de lo dispuesto en la vigente Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal.

l.- Respecto de los suelos en la actualidad incluidos en la zona IIb del anexo nº 3 y que conforme al vigente PGOU forman parte del “suelo urbanizable sin determinaciones, Reserva de Suelo para Actividades Económicas, Patrimonios Públicos del Suelo” el Ayuntamiento, iniciará el expediente administrativo necesario para la adquisición forzosa de los mismos, en cualquiera de las modalidades previstas en la Ley, y para su incorporación al patrimonio de SPRILUR, a petición de ésta, por resultar esta mercantil beneficiaria de la expropiación que se tramite.

Tal actuación se podrá realizar incluso simultáneamente con la contemplada en el apartado “a” de esta estipulación.

m.- A tramitar la incorporación, en la próxima revisión del planeamiento general, del parque empresarial VIAP en la configuración física del “manifiestan” tercero, como un único ámbito de actividades económicas, actividades industriales y logísticas vinculadas al sector aeroportuario.

Cuarta.- Por su parte, SPRILUR, SA, en relación a este convenio, se obliga a:

a.- Redactar y presentar ante el Ayuntamiento los documentos precisos en orden a la tramitación de los expedientes del Plan de Sectorización de la zona IIb del anexo nº 3, así como de modificación del planeamiento general municipal para la zona IIa del mismo anexo. En similares términos los correspondientes al planeamiento pormenorizado, programa de actuación urbanizadora, proyectos de gestión y equidistribución, proyecto de urbanización y proyecto de expropiación.

b.- Cumplimentar con diligencia los trámites que por el Ayuntamiento le sean requeridos.

c.- Cumplir la vigente normativa urbanística en cuanto a la actuación como promotores de la actuación y, en su caso, propietarios de los terrenos comprendidos dentro del ámbito.

d.- Cumplir la vigente normativa urbanística en cuanto a las cesiones a efectuar a favor del Ayuntamiento y a la ejecución de las obras de urbanización y, en su caso, mantenimiento de las mismas.

e.- Prestar la máxima colaboración al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, estableciendo canales de comunicación fluida y de estudio y resolución de las dudas que la aplicación del presente convenio pudieran plantear, así como transmitiendo su conocimiento, por la expe-

ezagutza ere partekatuko du, industrialdeen izapidetze eta kudeatzeari dagokionez.

f.- Hirigintza esparru guztietan indarrean dagoen hirigintza araudia zorrotz beteko du. Plangintza, kudeaketa eta diziplinari dagokionez, bai eta honekin lotuta bete beharko den bestelako araudiei dagokionez.

g.- 3. eranskineko IIb aldearen baitan dauden lurzoruak desjabetzeko dosierra zuzen izapidetzeko behar diren administrazio agiriak zein teknikoak landu eta Udalera bidaliko ditu, eta desjabetzearen onuradun izateagatik beharrezko diren bestelako jarduerak bere kontura egingo ditu. Indarrean dagoen HAPOrekin bat, "zehaztapenik gabeko lurzoru urbanizagarriak, jarduera ekonomikoetarako lurzoru erreserba, lurzoruaren ondare publikoak" sailkapena dute lurzoru horiek.

h.- Adiskidetasunez edo Gasteizko Udalak izapidetuko duen desjabetzearen onuradun gisa, zuzenean eskuratuko ditu 3. eranskineko IIa eta IIb aldeetako lurzoruak.

Bosgarrena.- Beharrezko balitz, orotariko tasazioaren bidezko desjabetzea baliatuko da. Urbanizatzeko jarduera programan zehaztuko da desjabetzea kudeatzeko modua, Eusko Jauriritzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 174 artikuluko 3. atalean xedatutako artetik.

Era berean, eta bere xedea soziala izateagatik, ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 29. artikuluko 4. atalean xedatutakoarekin bat, SPRILUR, SA. baltzua izango da desjabetzearen onuradun.

Jardutako sistema hori aldatzea edo beste batez ordeztzea, bai eta onuraduna aldatzea ere ezingo da egin Udalaren eta SPRILUR baltzuaren arteko adostasunik gabe.

Seigarrena.- Hirigintza jarduerak sortutako gainbalioei dagokionez, eremuko irabazi asmoa duen aprobetxamenduen ehuneko 15 emango zaio Udalari, nahitaezko eta doako lagapenagatik, komunitateko parte-hartzaile gisa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat. Izapidetzen den kudeaketa proiektuaren behin betiko onespenerekin Lurzoruaren Udal Ondarea eratuko du.

Hasiera batean aurreikusi den jardutako sistemarekin, lehen estipulazioan adierazitako jardueraren xedearekin, haren ondoriozko interes publiko zein sozial nabarmenarekin, SPRILUR baltzuaren eraketa eta akzionista kopuru erabat publikoarekin, zeinak hitzarmen honen ondorioetarako autonomia erkidegoko administrazio orokorraren erakunde jarduten baitu, ekintza horietan guztietan espekulazio edo irabazi asmoa ez egotearekin bat, bai eta lurzorua erosteko aurreikusitako prezioan zein SPRILUR baltzuak egin beharreko urbanizatzeko gastuan izango duen ondorio garrantzitsuekin ere, eta 2/2006 Legearen 118.a artikuluan lurzoruaren ondare publikoaren ondasunak lagatzeko aukera berariaz aurreikusi denez, alderdi biek egoki dela adostu eta erabakitzen badute, aipatu artikuluko horretan xedatutako inguruabarrak ematen direnean, SPRILUR, SA baltzuak adierazitako xede publikoak lortu eta gauza ditzan egoki diren mekanismoak ezarriko dira, laguntzeko eta bere zeregina errazteko.

Mekanismo horiek abian jartzea bidezko jotzen eta erabakitzen bada, dagokion dosierra izapidetu eta onetsi beharko da.

Zazpigarrena.- Gasteizko Udalak Gereñako eta Estarroako administrazio batzarrek SPRILUR, SA baltzuarekin ezartzen dituzten beste-erentzeak –borondatez edo, desjabetzea dosierraren barruan, adostasunez– baimenduko ditu, eskualdatze mota horretarako legeak xedatzen duen prozedura betetzen dela egiaztatu ondoren.

Zortzigarrena.- Aipatutako eremu horretan burutuko den jarduera SPRILUR baltzuarentzat ahalegin tekniko eta ekonomiko garrantzitsua dela jakin badaki Gasteizko Udalak. Horren helburua enpresen eskura nahiko lurzoru jartzea da, industria jarduera abian jarri edo dagoenarekin jarraitzeko. Era berean, Gasteizko Udalarentzat garatu nahi den industria eremua lagundu eta bultzatzea administrazio eta ekonomia ahalegina dela jakin badaki SPRILUR, SA baltzuak.

riencia acumulada en años de actividad, en la tramitación y gestión de zonas industriales.

f.- Cumplir estrictamente con la normativa urbanística vigente en la totalidad de ámbitos urbanísticos. Planeamiento, gestión y disciplina y en la demás normativa que, relacionada con esta, sea de obligatoria observancia.

g.- A elaborar y remitir al Ayuntamiento cuanta documentación administrativa y técnica se precise en orden a la correcta tramitación por este del expediente de expropiación de los suelos incluidos en la zona IIb del anexo nº 3 y que conforme al vigente PGOU forman parte del "suelo urbanizable sin determinaciones, Reserva de Suelo para Actividades Económicas, Patrimonios Públicos del Suelo", así como a asumir y realizar a su costa el resto de actuaciones que resulten precisas y derivadas de su designación como beneficiaria de la expropiación.

h.- A adquirir directamente, bien en vía amistosa, bien como beneficiarios de la expropiación que tramite el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, los suelos de las zonas IIa y IIb del anexo nº 3.

Quinta.- Si resultara necesario, el sistema de actuación previsto será el de expropiación mediante tasación conjunta. En el Programa de Actuación urbanizadora se determinará la modalidad de gestión de la expropiación, de entre los establecidos en el artículo 174, apartado 3 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2006 de 30 de junio.

De igual forma, y por resultar de su objeto social, al amparo de lo establecido en el artículo 29, apartado 4, del Real Decreto Legislativo 2/2008 de 20 de junio, SPRILUR, SA quedará designada como beneficiaria de la expropiación.

La modificación de dicho sistema de actuación y su sustitución por otro, así como el cambio de beneficiaria requerirá acuerdo unánime del Ayuntamiento y de SPRILUR.

Sexta.- En concepto de participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística, según lo establecido en el artículo 27 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, corresponde al Ayuntamiento por cesión obligatoria y gratuita, el 15 por ciento del aprovechamiento lucrativo del ámbito, que integrará el Patrimonio Municipal de Suelo con la aprobación definitiva del proyecto de gestión que se tramite.

Atendiendo al sistema de actuación inicialmente previsto, a la finalidad de la actuación a que se refiere la estipulación primera, al evidente interés público y social que de la misma se deriva, a la naturaleza y composición íntegramente pública del accionariado de SPRILUR que a los efectos de este convenio actúa en cuanto ente instrumental de la Administración General de la Comunidad Autónoma, a la ausencia de finalidad especulativa o lucrativa en el resultado de las operaciones, así como a la importante repercusión tanto del precio previsto de adquisición del suelo como de los gastos de urbanización a afrontar por SPRILUR y, estando expresamente prevista en el artículo 118 apartado a) de la Ley 2/2006 la posibilidad de ceder bienes del patrimonio público de suelo cuando concurren las circunstancias previstas en dicho precepto, ambas partes pactan y convienen que, si así se estima procedente por ambas partes, se establecerán los mecanismos oportunos para colaborar y facilitar a SPRILUR, SA la consecución y materialización de los fines públicos expresados.

Dichos mecanismos, si proceden y así se acuerda, requerirán de la tramitación y aprobación del expediente oportuno.

Séptima.- El Ayuntamiento de Vitoria procederá a autorizar las enajenaciones –en vía voluntaria o, en el seno del expediente expropiatorio, los mutuos acuerdos– que las Juntas Administrativas de Gereña y Estarona establezcan con SPRILUR, SA, siempre que se verifique el cumplimiento del procedimiento legalmente establecido para este tipo de transmisiones.

Octava.- El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz sabe y conoce del importante esfuerzo técnico y económico que para SPRILUR supone la actuación en el ámbito referenciado en orden a conseguir la puesta a disposición de las empresas, de suelo suficiente en el que implantarse o continuar con su actividad industrial. Del mismo modo SPRILUR, SA sabe y conoce el esfuerzo administrativo y económico que desde el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz supone el apoyo e impulso del ámbito industrial que pretende desarrollar.

